

AEBtako artzaintzaren adibide bat. Pete Cenarrusarekin elkarrizketa

(An exemplary Basque shepherd in United States.
Interview with Pete Cenarrusa)

Egaña-Goya, Miren
Aranzadi Zientzia Elkartea. Zorroaga gaina kalea, 11. 20014 Donostia

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-218-3 (2011), 253-264]

Lan honen bidez zera saiatu gara: garai batean AEBetara joandako euskaldunen lanbide arrunt bat azaltzen. Euskaldun haiek artzain lana ikasi eta lan horretan estimatuak izan ziren, lanbide hori ia soilik beraiek eginaz. Besteentzat hasi baldin baziren ere lanean, laister bere goi mendietako bizitza bakarrari esker lortutako diruekin bere artaldearen jabe izan ziren.

Giltza-Hitzak: Euskaldunak. Artzantza. AEB. Boise.

A través de este trabajo, hemos intentado hacer lo siguiente: explicar una profesión común de los vascos que se fueron a los EE. UU. en una determinada época. Aquellos vascos aprendieron el oficio de pastor y fueron valorados por ello, llegando a ser casi los únicos que lo ejercían. Aunque empezaron a trabajar para otros, gracias al dinero que consiguieron con su solitario trabajo en las altas montañas, pronto fueron dueños de sus propios rebaños.

Palabras Clave: Vascos. Pastoreo. EE. UU. Boise.

À travers ce travail, notre objectif était le suivant : expliquer une profession commune des Basques qui sont partis aux États-Unis à une certaine époque. Ces Basques ont appris le travail de berger et ont été reconnus pour cela, pour être quasiment les seuls à l'exercer. Même s'ils ont commencé à travailler pour d'autres, grâce à l'argent qu'ils ont gagné avec leur travail solitaire dans les hautes montagnes, ils ont bientôt réussi à devenir propriétaires de leurs propres troupeaux.

Mots-Clés : Basques. Pâturage. États-Unis. Boise.

Aspaldikoa da euskaldunen Ameriketara joateko joera. Hasieran bale eta bakailaotara joaten baziren ere, XVI. mendez gero Ipar Atlantikora, alegia, laster aurkitu zuten Hego Ameriketako bidea. Hala eta guztiz ere XIX. eta XX. mendeak izan ziren Euskal Herritik Ameriketara jende ugarien joan zen garaia.

Euskaldunak beste asko bezala errearen deiari jarraituz edo, jo omen zuten XIX. mendearen erdi aldera Hego Ameriketatik Ipar Ameriketara eta hain zuten Ameriketako Estatu Batuetara. Beste arazo batek baina, bultzatu zituen hego euskal herritarrak Ameriketara: gerrak eta pobrezia. Azken gerra karlistak utzi zituen ondorioen artean XIX. mendeko azken laurdenean, lehen aipatutako pobrezia pertsona asko bultzatu zituen Ameriketara emigratzea lan bila. Horietatik asko Hego Ameriketara jo zuten, batez ere Argentinara, gero handik Txilera pasa eta handik AEBetara jo zuten Douglass eta Bilbaok ondo aztertu zuten bezala¹. Hau da, ez ohiko bidaia egin zuten Kaliforniatik barrena, Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldera zuten sartuz. Gaur egun jakina da artzain gisa lan egin zutela horietako asko eta ardientzat ezin hobeak ziren larre zabalak han zeudela, mendebaldean, alegia. Heldu eta berehala, hau da XIX. mendean, beti ere Douglassen esanetan euskaldunak kontsideratuak izan ziren talde etniko bat bezala. Alde batetik dirua azkar egiten zutenaren ospea zuten eta euren Herrira joan etorri ugariak egiten zituztela agertzen da bertako egunkarrietan². Mendearen amaierako, hau da 1880ko hamarkadaren azken aldirako euskal etnia onartzen zuten: bai euskaldunak ez ziren euren auzoek, bai bertako egunkariek euren Europara joan etorrien berri ematean³.

Ez zen erraza izan hasieran, baina, euskaldun haien bizimodua. Euren artzain lana sozialki gutxietsia zen eta aldi berean sakabanatuta bizi ziren. Bi arazo hauek gehi hizkuntzaren ezjakintasuna zaildu baldin bazituen ere hasierako auzoekiko harremanak, auzoen errespetua lortu zuten lanerako zuten arduragatik eta aldi berean ohitura eratsuak, eta “bizi modu neurrizkoak” zituztelako⁴.

Batetik bestera ibiltzeak ere, arazoak sortu zizkien, batez ere errantxeroen partetik, bizimodu sedentarioa baitzuten azken hauek, eta abere kopuruen hazkuntzak uraren borroka sortu baitzuen maiz. Aipaturiko idazleek diotenez XX. mendearen hasierako euskaldunak nagusiak ziren artzain gisa gainontzeko talde etnikoen gainera⁵.

AEBtara joandako euskaldunak ez ziren leku bakar batetik joan, ez eta, probintzia bakar batetik ere. Talde nagusia bizkaitarra zen, haiekin batera baziren behenafarrak, nafarrak eta zuberotar bakan batzuk ere.

1. Douglass, A. W.; Bilbao. J. *Amerikanuak...*

2. *Ibid.*; 328. or.

3. *Ibid.*; 328. or.

4. *Ibid.*; 334. or.

5. *Ibid.*; 300. or.

Aspalditik nuen Pete Cenarrusaren ezagutza. Aranzadiko Etnografia departamentuan egin genuen Euskalerriko Atlas Etnolinguistikorako –EAEL– galdaketa, alegia, pare bat inkesta betetzeko eskatu genion Boiseko Miren Rementeriarri. Horietako bat Trini Rementeria, bere ama zenari egin zion eta bestea Pete Zenarruzari. Azken honen erantzunak zein testuak neuk traskribatu nituen 1990an argitaratu zen Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoaren II alerako. Pete, Euskal Herrira egindako zenbait bidaietan topatu nuen, eta baita bere sorlekuan ere, 2005eko uztailaren 27tik 31ra Jaialdia egin zen egunetan Boisen (Idaho). Jakina da Jaialdia bost urtetik behin egiten dela Boisen, Idahoan, eta bertara euskaldun asko hurbiltzen dela, batez ere AEBetatik eta baita beste zenbait lekutatik ere, hala nola Australia, Hego Amerika, Euskal Herria etabar.



Pete Cenarrusa Elkoko bere lagun Bob Etxebarriarekin 2005eko Jaialdian.

Jakinik P. Cenarrusa artzain izan zela, N. Oiarbidek zera gomendatu zidan: Pete edadetu xamarra zela eta komeni zela bere artzain lanari buruz galdaketa bat egitea. Egokia iruditu zitzaidan eta F. Leizaola artzantzan adituari galdaketa egiteko eskatu nion, bai eta A. Leizaolari ingeleseratzeko ere.

Duela lau urte bada, AEBrants abiatu ginen N.O. eta biok uztailaren erdialdean Boiseran. Jaialdian zehar aukera izan nuen Cenarrusa jaunarekin hitz egin eta galdaketa egiteko. Adostutako egunean grabagailu batekin eta galdaketa-aren ingeles zein espainierazko bertsioarekin heldu nintzen berarengana, jakina noski 88 urteko pertsona batekin ari nintzela eta ezin neka nezakeela. Galdaketa bere etxean egin nion eta lau urte beranduago nituen zalantzak Gernikan osatu ditut aurten, Cenarrusak Euskal Herrira egin duen bere aurtengo bidaiari 2009ko martxoan.



Pete Cenarrusa bere etxean Boisen 2005eko uztailan, Jaialdi garaian.

1. GALDAKETA

Inkestaren ordena jarraitu badut ere, testu jarraituan saiatu naiz idazten txosten hau errazagoa iruditu baitzait irakurtzeko.

Pete Cenarrusa, Careyn, Idahon jaio zen 1917ko abenduaren 16an. Ama, Gernikako Dondiz baserriko Ramona Gardoki izan zuen, aita berriz, Jose Mari Zenarruzabeitia Munitibarko Azkarreta baserrikoa. Gurasoak XX. mendearen hasieran joan ziren AEBetara, baina ez zuten elkar ezagutzen hara heldu ziren arte. Aita joan zen lehena, 1907an iritsi zen New Yorkera eta bertan Valentin Agirrereren Hotel Espanol-Keller deiturikoan geratu zen. Hotel honetako iragarkian beste gauza batzuen artean zera irakur daiteke: “*Euscaldunac ondo tratatuac dira*” eta hotelaren

helbidea 385 West Street Nueva York⁶. Peten esanetan mendebaldera bidali zuten trenez, Idahora, Shoshonera. Zazpi urte beranduago 1914an abiatu zen Gernikako Dundiz baserritik Ramona Gardoki New Yorkera, eta honek ere Agirre hotelera jo zuen. Bere senarra izango zenaren bide berari jarraitu zitzaion, eta AEBetako mendebaldera heldu zen, Shoshonera⁷ hain zuzen ere. Shoshone izen indio bat dela adierazi zidan Cenarrusak.

Bere familiaren jatorria euskalduna zela esan zidan. Gurasoak lan bila joan ziren AEBetara eta Shoshone (Idaho) eta Carey (Idaho) herrietan bizi izan ziren. Shoshonen elkar ezagutu zuten P. Cenarrusaren gurasoak eta Careyra joan ziren bizitzera, aita George Herbs jaunarentzat egiten zuelako lan. Bertan jaio zen Pete 1917ko abenduaren 16an. Euskara gurasoek irakatsi zieten berari eta bere lau anai arrebei, Euskaraz hazi ziren Pete eta bere senideak, hori baitzen etxeko hizkuntza.

6. *Ibid.*; 304. or.

7. EE.BB. *Le Souffle de l'esprit. Coutumes et traditions chez les Indiens d'Amérique*, 94. orrian agertzen den Ipar Ameriketako mapan, hau da AEBetako Iparra eta Kanadako hegoan Shoshonis tri-bua agertzen da.

2. ARTALDEAK

Aita lanera joan omen zen, ardiak zaintzera, artzain egin zen. Beste euskaldun batzuk ehunka abelburu zaintzen zituzten, gehienbat ardiak baina baita horiekin batera beste animalia batzuk ere, zaldiak eta behiak. Bere aita, Russell zeritzon gizonarentzat aritu zen lanean, beste hiru euskaldunekin batera.

Bere aita 1915ean edo, ezkontzean, bere artaldearen jabea zen. Pete berak bere artalde propioa izan zuen 1952an. Beste jabe bati, italiar bati erosi omen zizkion ardiak, 1.200 buru. Erosketa egin ahal izateko aitak mailegatu zion dirua.

Erositako ardiak Rambouillet mutur zurikoak ziren, [merino arraza] artilatara-ko zituen.

Artaldeak hasieran 1.200 buru baldin bazituen ere, lehenengo urtean alegia, beste euskaldun bati 1.000 saldu zizkion.

Artaldea ondo hornituta izateko 75 ardiko ahari bat omen zuen. Ardi guztiak umeak egiteko ziren. Ahariak beroaldiko hiru hilabetetan bizi ziren artaldean eta gero denak kanporatu egiten zituzten.

Arkumeak 6-7 hilabete zituztenean hiltzen zituzten, ahariak eta ardiak berriz hil arte gordetzen zituzten zazpiren bat urtetan edo. Dena den beste era batera ere hil daitezke ardiak: erditzean, hortzak galtzean, hipogluzemiaz, zahartuta. Hil baino lehen errantxeroei saltzen zizkieten lau urte zituztenean edo, haragitarako.

Arkumeak 2 1/2-3 hilabeteekin zikiratzen zituzten, ahalik eta lehenbailehen gehiago hazteko. Zikiratze modua ez da aldatu Kalifornian, Idahon desberdina da.

Lehenbiziko estaltze aldia urte batekin gertatu ohi zen, eta handik aurrera urtero gertatzen zen. Erditzea San Juanetan eta Abenduan izaten zen, baina Idahon beranduago gertatzen zen. Arkumeei esnea kentzen zitzairen 6-7 hilabete zituztenean, azokara joan arte amarekin zeuden.

Gaur egun artzainak ez dira bizi ardiekin, goi larretara doazenean 3.000 m-tara zaintzaileak zaldiz doaz, dendak garraiatzen dituzte, errifleak eta pozoia eramaten dute. "Band" bat zera da: 22.000 ardi, arkume eta ardiak. Gaur egun 30.000 taldeko artaldeak dira.

Artalde bat honako aberez osatua dago:

Ardiak	1.000 arkumekin artaldia berritzeko.
Ahariak	1 / 75 ardiko.
Ahutzak	ez dituzte.
Zakurrak	2 Band bakoitzeko → 2 zaintzari → 2 or = (great pyrennees)

Orain 3 zakur eramaten dituzte, honako arrazatakoak: komondor, mugako collye (border collyes), turkoak (turkish). Zakurrak txikiak direnean ardiekin jartzten dituzte hauek uste izan dezaten ardiak direla, eta artzainek eramaten diete jana. Zaldiak eta / edo behorrak ere izaten dituzte, bat artzain bakoitzeko.

Ardiek zintzarriak daramatzate:

- 100etik hamarrek daramate zintzarria.
- 100 arditik 1 beltza da artaldean.

Jabego markak ere badituzte: ardi gehienek pintura daramate, beste batzuk markak dituzte belarrietan. P. Cenarrusaren ardi askok akatza (notch) eskuman, aurrean, zuten edo osoa eskuman aurrean. Inoiz Kalifornian erosi omen zituen 'ebagixe' edo 'pitzatue' (sleit-ear). Ardiak edadeagatik bereizten zituzten bi urtekoa, lau urtekoa...

3. UDA ETA NEGUKO LARREAK

Udako larreak alokatzen zituen Idahoko mendietan 2.750-3.350 metrotan. 1934an lurralde guztia hutsik zegoen, Kongresuak lege berri bat atera zuen artzainei negurako lurrak bereak izan behar zutela exijituz. Euskaldunak heldu zirenean lurrak alokatu zituzten hasieran, baina lege berriarekin ordura arte doainik ziren lurrak erosiarazi zizkieten. Alokatzten zituzten lurralde motak honako hauek ziren:

Lurralde motak	
Lur sail pribatuak	
Lur sail federalak	(forest service)
Estatuko lur sailak	→ (BLRC = Bureau of Land Amenagement) → (State Lands)

Alokairua 10 urtetako hartzen zuten.

1983ean euskaldunak aterarazi zituzten lurrak ez zituztelako.

Uda, 1945arte Careyn pasatzen zuten 3.000 metrotan, handik aurrera Kalifornian. Artaldea gutxi gorabehera 23.000 ardiz osatua zegoen.

Errepidez egiten zuten neguko barrutietako bidea eta 1975tik aurrera kamioietan. Kamioi bakoitzean 300 buru sartzen ziren, goizeko 8:00tan irteten ziren eta gaueko 10:00tan iristen ziren Kaliforniara.

Uda partean lehen artzainak "cabine" deitutakoetan bizi ohi ziren eta artaldearen jabeak eramaten ziren janaria, gaur egun artzaina hirira lurrorotako autoan jaisten dira.



Uda aldian goi larreetan erabili ohi zituzten «cabine» direlakoak ikusgai Jaialdian.

Uda eta neguko jardunaldia

	Lehen	Gaur egun
Urtarrila	Kalifornian umetze denbora	berdin
Otsaila	Kalifornian umetze denbora	berdin
Martxo	Kalifornian umetze denbora	berdin
Apirila	Behe lurraldeetako belar freskoan 400 arkume	berdin
Maiatza	Udaberria, beheko lurrak, basamortua	berdin
Ekaina	Mendira igotzen dira, lehenengo arkumeak kentzen dituzte	berdin
Uztaila	Ekainaren amaiera eta uztailaren 1. astea arkumeak saltzearekin batera goi mendira doaz	berdin
Abuztua	Goi mendiak ernalaroa	berdin
Iraila	Goi mendiak ernalaroa.	berdin
Urria	Behe lurraldeetara jaisten dira, apirila eta maiatzean bezala	berdin
Azaroa	Artile mozketa hasten da, kamioietan Kaliforniara joan baino lehen	berdin
Abendua	Kalifornian daude	berdin

Artaldea zenbatzen zuten zikiratu behar zuten bakoitzean. Liburu batean kontatzen zituzten. Larre-aldaketa egiterakoan ere zenbatzen zituzten ardiak, arku-meak Kalifornian zikiratzen zituzten Blitme deritzan zelaian.

4. SENDAKUNTZA HERRIKOIA. BASA ANIMALIAK

Tximistaren aurka ez zuten inolako neurririk. Ardiak bizkiak erditzen zituztenean amari hankak lotu eta leku guztietara elkarrekin joaten ziren hirurak. Arkumeen isatsak mozten zizkieten labanaz, 'kutxilogaz, hasten den lekutik hiru hatzetara, ahariei doblera', hau da sei hatzetara. Berak ez zituen jaten isatsak, amerikanoek bai. Arkumeak azokara eramatekoan 6-7 hilabete dutenean uzten diote esnea hartzeari. Hile mozketa irailaren amaieran edo urriaren hasieran makinaz eta mendian zeudenean egiten zuten.

Gaur egun Kanadatik etorritako otsoak daude, ez dago sugerik, arranoak Wyoming estatuan aurki daitezke. Animalia guztien artean okerrena koiotea da artzaintzat. Artzain gehienek eskopeta edo erriflea dute, tranpak jartzeko gobernuaren baimena behar dute, lazoak, bai, erabiltzen zituzten, sugeak goitik hegazkinetik tirokatzen zituzten.

5. ERANTZUN OROKORRAK, SOZIALIZAZIOA

Peten aitak ez zekien ezer artzaintzari buruz AEBetara iritsi aurretik, arituz ikasi zuen artzain izaten eta Petek berarekin ikasi zuen. Peteri batzuetan, bakarrik lan egitea suertatu zitzaion eta emaztea izan zuen lagun. Ia artzain guztiak EABetako mendebaldean euskaldunak ziren, kasu bakan batzuetan amerikarrak ziren. Emakume bakan batzuk ere ari izan ziren artzain gisa, ez asko.

Pete Cenarrusa bigarren mundu gerra ostean (Navy Marins taldean egin zuen gerra), irakasle izan zen beteranoentzat bai eta amerikar nazionalitatea lortu nahi zutenentzat. Klase horietan ezagutu zuen bere emazte izango zena: Freda Coates andereñoa. 1947an ezkondu ziren. Seme bat izan zuten.

Gurasoak joan zirenean erraza omen zen AEBetara sartzea, muga ez baitzegoen. Behin muga itxita, oztopoak jarri zituzten artzain bezala lan egitera joateko. Petek ez zuen arazorik izan, bertan jaioa baitzen, estatubatuarra zen.

Artzainak kontratu-pean joaten ziren AEBetara, kontratuak 1950-56 hasi eta 1983arte iraun zuten, kontratua beharrezkoa zen AEBetara sartu ahak izateko, behin hiritartasuna lortuz gero ez zuten kontratuaren beharrik. Douglasssek dioenez⁸ 1950 eta 1970 bitartean kontratatutako artzain gehienak euskaldunak ziren, baina 1960 ezkerro gero eta zailagoa zen euskaldunak kontratatzea bi arrazoi gatik, bata Euskal Herriko egoera politikoa eta bestea Euskal Herriko hazkunde ekonomikoa.

8. DOUGLAS, W. A. *Basque shepherders of the american west*; 142-149. or.



Euskal hildakoei eta euren gertukoei eskainitako oroitarriak.

Jaialdia, barbakoak eta horrelako festaz baliatzen dira euskaldunak euren artean elkartzeko.

Txosten hau transkribatu bitartean zera antzeman dugu: ez zirela era berdinean abiatu AEBetara han artzain gisa bizi izan ziren guztiak. Hasieran joandakoak, XIX. eta XX. mendearen lehen laurdenean, alegia, ez zuten oztoporik izan, muga zabalik zegoen, beraz sartu eta eurek aukeratu zuten artzain ogibidea. Horrela joandakoak gehienetan ez ziren artzain, gure inkestatuaren aita adibide gisa, baserritarrak ziren eta kasu oso bakanetan etxe-ardi gutxi batzuk izan zitzaizkien baserrian, beraz, lanbide berri bat ikasi behar izan zuten eta ondo ikasi gainera, AEBetako mendebaldean euskalduna izatea artzaina izatea baitzen duela gutxi arte. Ia gehienek bere euskal izakera mantendu zuten eta guk topo egin genituen bikote mistoetan gehienek bikotekidea euskaldun izatera erakartzen zuten. Hau Boiseko Euskal Blokeko kaleko espaloian jarritako adokinetan ikus daiteke. Bazterrean, Euskal Etxearen ondoan, hildakoen izenak agertzen dira, heriotza datarekin eta batzuk ez dute euskal abizena, baina euskal komunitatearekin lotura dute. Kale bereko espaloian aldiz, espiralak eginaz eta orden alfabetikoan bertara etorritakoen abizenak daude, gehienak erraz ezagut daitezken abizen euskaldunak dira.

Bigarren mundu gerraren ostean joandakoak oso egoera desberdina zuten: muga itxia zegoen bi aldetatik: AEBetara zaila zen sartzen, baina Espainiatik zai-

la zen irtetzen, eta kontratu pean joan behar izaten zuten AEBetan lana egin ahal izateko. Kontratua gehienetan artzain lanak egiteko zen. Batzuk hortaz baliatu ziren bost urte ondoren AEBetako naziotasuna lortzeko, beste batzuk berriz, joan etorriak egin zituzten eta kasu askotan itzuli ziren Euskal Herrira.

Bakanka joan baldin baziren ere, gaurko egoera ikusita, laister elkartu zirela euskaldunak nabari da. Taldeka biltzen ziren estatu desberdinetan “Euskal etxeak” frontoi eta guzti sortuz. Euskaldun haiek laister “Basque” bezala kontsideratuak izan ziren, nahiz eta askok euren ama hizkuntza galdu. Hara heldu berritan, hizkuntza mantendu zuten hurrengo belaunaldia arte, baina alde batetik eskolak eta bestetik, kasu batzutan behintzat, ezkontza mistoek (euskalduna eta ez euskalduna) etena sortu zuten hizkuntzaren transmisioan; ez hala kirola, kultura eta euren Herri minari dagokionez. Douglass eta Bilbaoren⁹ esanetan, azken bost mendeotan Euskal Herria Europako herrialdeen artean emigrante ugarien eman duenetakoa da. Amerikanuak bere obra mardulean diotenez gainera, eta, Europako euskaldunok zalantzan jar baldin badezakegu ere, euskaldunak omen dira emigrante europarren artean bere sorterriarekiko gehien mantendu dutenek atxekimendua.

6. BIBLIOGRAFIA

- DOUGLAS, William. *Amerikanuak. Basques in the New World*. Reno: University of Nevada Press, 1975. (Versión castellana Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 1986).
- . *Basque Shepherders of the American West*. Reno: University of Nevada Press, 1985.
- DUFURRENA, Carolyn (texte); DUFURRENA, Linda (photographer). *Fifty Miles From Home: Riding the Long Circle of a Nevada Family Ranch*. University of Nevada Press, 2001.
- EE.BB. *Le Souffle de l'esprit. Coutumes et traditions chez les Indiens d'Amérique*. Paris: Jean Piccolec et Éditions Québec/Amérique, 1988.
- LAXALT, Robert. “Lonely sentinels of the American West. Basque shepherders”. In: *National Geographic Magazine*, CXXIX. Washington, 1966; 870-888. or.
- . *Sweet Promised Land*. New York, 1957.
- LEIZAOLA, Fermin. *Artzaingoa Euskalerrian*. Donostia: Etor, 1977.
- . “El pastoreo en Euskal Herria”. In: *Comunidades de Montaña, Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía 14*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997.
- . “Gipuzkoako artzantza”. In: *Bertan*, 13, 1999.
- . “Los caminos pecuarios en Euskalerría, rutas y cañadas”. In: *Caminería hispánica: Actas del I Congreso de Caminería Hispánica*, (Caminería física), vol. 1, 1993; 211-216. or.
- . “La distribución del tiempo entre los pastores de ovejas latxas”. In: *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, nº 57. Pamplona-Iruña, 1991; 49-54. or.

9. DOUGLASS, A. W.; BILBAO, J. *Amerikanuak*; 18. or.

Egaña-Goya, Miren: AEBtako artzaintzaren adibide bat. Pete Cenarusarekin elkarrizketa

—. “El pastoreo tradicional en Guipúzcoa. Notas para su estudio”. In: *Narria: Estudios de artes y costumbres populares*, nº 55-56. Madrid, 1991; 16-26. or.

LHANDE, Pierre. *L'émigration basque*. Paris, 1910. (3. reprint Donostia: Elkar, 2000).

MEINIG, D. W. *The shaping of America a Geographical Perspective on 500 Years of History*, vol 1. New Haven and London: Yale University Press, 1986.